

Udaletxean egindako azken 3 urteak gogoz, zorroztasunez eta arduraz betetzen saiatu naiz. Jakin badakit, gobernuak bere akordio eta lan bezala aurkeztu dituen hainbat ekimenen atzean beste batzuen hauspoa funtsezkoa izan dela eta alde horretatik pozik joango naiz kargutik. Gustatuko litzaidake proiektu eraldatzaile gehiagotan energiak gastatu izana eta gutxiago oinarritzko kudeaketa kontuak borrokatzen eta salatzen. Irmoki sinesten dut mundu eta herri hobeko bat nahi badugu, alderdikerien eta ezin ikusien gainetik, ausardiaz eta guztion artean, proiektu eraldatzaileak martxan jarri behar ditugula eta beraien oinarria herrian bertan dugula. Bide horretan, Udaletxeko teknikariak, herriko eragileak eta arlo askotan parte hartzeko prest dauden herritarrak gehiago entzun eta babestu behar ditugula uste dut.

Ni neu hausnartzen jarri naiz eta une honetan etxean bertan inon baino gehiago behar nautela antzeman dut. Izan ere, legealdi honetan jaioko den 2. semea izango dut datozen asteetan. Energia eta pazientzia guztia etxean emateko garaia dudala konturatu naiz, etorkizunean ere helduko zaizkidalako herriaren alde lanean jarraitzeko aukerak. Niri txanda ematen, Udalean eskarmentu handia duen eta lanean gogor jarraitzeko asmoz dagoen EH Bildu taldeko Larraitz Trojaola izango duzue.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet, esperientzia hau horren aberasgarria izatea eragin duten udal zinegotzi eta teknikari guztiei, batez ere, berdintasun arloan ahaldundu nautenei eta politikaren gainetik pertsona bikainak direla erakutsi didaten taldekideei. Eta ezin agurtu azpimarratu gabe, udaletxeko balkoiko loreak atseginak diren arren, gainazaleko esku-hartzeekin soilik, ez dugula herri hobe bat lortuko, bai ordea, partaidetzan, justizia sozialean, inklusioan, hezkuntzan edota jasagarritasunean zintzoki sinesten duten herritar eta politiken eskutik.

Arrasaten, 2018ko martxoaren 6an.

Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga
EH Bildu Taldeko udal zinegotzia